

## **LABek Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio irakasle zuzentzaileak babesteko eta euskararen kontrako oldarraldia ez elikatzeko**

**Bide beretik Hezkuntza Sailari eskatzen dio egiturazko neurriak ezartzeko ikasle guztiek DBH bukatzean B2 maila eskuratu dezaten eta D ereduan oinarrituriko ikas-eredua orokortzeko.**

LABen iritziz, oso larria da azken asteotan UsaPeko euskarazko proba dela-eta sortu den egoeraren aurrean Eusko Jaurlaritzak, eta zehatzago, Perez Iglesias eta Pedrosa Sailburuek izan duten jarrera. Jaurlaritzak EHUko egungo errektoretzaren kontra duen jarrera politikoak bultzatuta, gaur egun arte selektibitateko frogan zuzentzeko sortzen ez zuten arazo bat hauspotu eta elikatu du. Hezkuntza Sailak eta EHUk, biek ala biek, ardura partekatua duten eremu batean.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzaren diskurtso eta jarrerak zein itunpeko ikastetxe elitista konkretu batzuetako A ereduko ikasle batzuen nahiz euren gurasoen mezu euskarafoboaren aurrean izan duen erreakzioa edo eskuhartze eza ondorio kezagarriak uzten ari da:

- Ikasleen aukera berdintasuna urratu da. Familia horiek hauspoturik epaileek euskararen kontrako kautelazko neurri bat ezartzea erabaki dute; ikasleek azterketa zuzentzea eskatu eta zuzenketa prozedura berme guztiekin eginda ere, konforme egon ez diren ikasle horiei euskara unibertsitaterako sarbidetik salbuesteko erabakia. Oldarraldi judizial-politiko eta mediatikoaren adibide lazgarria.
- Hezkuntza-sistema publikoko euskarazko irakasle unibertsitario zein ez-unibertsitarioen eta gainerako pertsonal teknikoaren lana auzitan jarri da eta haien kontra egin da. Ebaluazio-sistema osoa auzitan jarri beharrean eta UsaPen aurretik hobekuntzak adostu beharrean, langileak jarri dira jopuntuan, Hezkuntza Sailak eta Unibertsitate Sailak babestu ez dituen langileak. Aurreko legegintzaldira arte inolako arazorik egon ez den eremuan, arazo bat sortu nahi izan du Jaurlaritzak. LABek oso argi du zer dagoen horren atzean. EHUko egungo errektoretzaren kontrako jarrera politiko argia.
- Itunpeko ikastetxe elitista konkretu horietako A ereduko ikasle horiek zein haien familiek dabilten euskararen kontrako diskurtsoak pasabidea eman die, batetik, euskararen kontrako oldarraldi judizial-politiko eta mediatikoari, eta bestetik, euskararen kontrako jarrera erreakzionarioei. Kasu honetan eskuinak eta ultraeskuinak hauspotzen dituzten diskurtso eta jarrerei bide ematen ari zaie, eta ez da kasualitatea ikasle horien mobilizazioetan alderdi horietako kideak egon izana.

Egoera horren aurrean, LABek urgentziazko neurri batzuk zein egiturazkoak diren beste batzuk eskatzen dizkio Eusko Jaurlaritzari. Batetik, urgentziazkoa da Eusko Jaurlaritzak irakasle zuzentzaileak eta errebisiorako erabili den bermedun prozedura babestea zein ikasleen aukera berdintasuna bermatzeko EHUrekin batera elkarlanean aritzea.

Eta bestetik, agerian geratu da A ereduak ez duela euskalduntzen eta ez duela bermatzen Hezkuntza Legeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bukaerarako ezarritako B2 maila eskuratzeko. Beraz, egiturazko neurriak eskatzen dizkio LABek Hezkuntza Sailari, ikasle guztiek DBH bukatzean euskarazko B2 maila eskuratu dezaten baliabide eta neurri gehigarriak ezartzeko, ikaskuntza-prozesuan etengabeko ebaluazioaren egokitzapenarekin batera. LABek argi du hori hizkuntza-ereduen desagertpenak

eta euskararen murgiltze ereduan oinarrituriko ikas eredu orokortuaren ezarpenak ekarri eta bermatu-  
ko duela soilik.

## **LAB reclama al Gobierno Vasco que apoye al profesorado que ha corregido los exámenes y que no alimente la ofensiva contra el euskara**

**En la misma línea, pide al Departamento de Educación que establezca medidas estructurales para que todo el alumnado consiga el nivel B2 al finalizar la ESO y para generalizar el modelo educativo basado en el modelo D.**

En opinión de LAB, es muy grave la actitud que han mantenido el Gobierno Vasco, y más concretamente, el y la consejera Juan Ignacio Pérez Iglesias y Begoña Pedrosa ante la situación que se ha creado en torno a la prueba de euskara de la PAU en las últimas semanas. El Gobierno Vasco, impulsado por su actitud política contraria al actual rectorado de EHU, ha reforzado y alimentado un problema que hasta ahora no generaba la corrección de las pruebas de la selectividad, en un ámbito que tanto el Departamento de Educación como EHU tienen una responsabilidad compartida.

Así, el discurso y las actitudes del Gobierno Vasco y la reacción o falta de intervención que ha mostrado ante los mensajes euskaráfobos del alumnado de modelo A y de sus padres y madres de algunos centros educativos elitistas concretos, está dejando unas consecuencias preocupantes:

- Se ha vulnerado la igualdad de oportunidades de las y los estudiantes. Bajo el impulso de dichas familias, los jueces han decidido establecer una medida cautelar en contra de euskara; aunque las y las alumnas hayan pedido que se revise el examen y el procedimiento de corrección se haya realizado con todas las garantías, se ha decidido que esos alumnos y alumnas queden exentas del euskara en el acceso a la universidad. Una terrible muestra de ofensiva judicial, política y mediática.
- Se ha puesto en tela de juicio el trabajo del profesorado de euskera universitario y no universitario y demás personal técnico del sistema educativo público y se ha actuado en contra de ellos y ellas. En lugar de cuestionar todo el sistema de evaluación y acordar mejorar antes de la PAU, se ha puesto en el punto de mira a las y los trabajadoras, que no han sido apoyados y apoyadas por los departamentos de Educación y Universidades. El Gobierno Vasco ha querido crear un problema en un ámbito en el que hasta la anterior legislatura no ha habido ningún problema. LAB tiene muy claro qué hay detrás de esto, una clara actitud política contra el actual rectorado.
- El discurso utilizado por ese alumnado de modelo A de esos centros educativos concertados elitistas y sus familias ha dado el paso, por un lado, a la ofensiva judicial-política y mediática en contra del euskara, y por otro, a actitudes reaccionarias contra el euskara. En este caso, se deja paso a discursos y actitudes que impulsan a la derecha y a la ultraderecha y no es casualidad que en las movilizaciones de esos alumnos y alumnas haya habido miembros de dichos partidos.

Ante esta situación, LAB reclama al Gobierno Vasco algunas medidas urgentes y otras estructurales. Por un lado, es urgente que el Gobierno Vasco apoye al profesorado encargado de las correcciones y el procedimiento de garantías que se ha utilizado para la revisión y que realice un trabajo conjunto con EHU para garantizar la igualdad de oportunidades del alumnado.

Por otro lado, ha quedado de manifiesto que el modelo A no euskalduniza y no garantiza conseguir el nivel B2 que establecido por la Ley de Educación para la finalización de la Educación Secundaria Obligatoria.

gatoria. Por lo tanto, LAB reclama al Departamento de Educación medidas estructurales para establecer medidas adicionales para que todo el alumnado consiga el nivel B2 de euskara al finalizar la ESO, junto con la permanente adaptación de la evaluación en el proceso de aprendizaje. LAB tiene claro que esto solo vendrá y se garantizará con la desaparición de los modelos lingüísticos y el establecimiento de un modelo educativo generalizado basado en el modelo de inmersión en euskera.